


OLENTZEROREN IPUINA



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (luzea)

ASPALDI-ASPALDI, ORAIN DELA URTE ASKO, ETXEAK BEROTZEKO ETA JANARIAK PRESTATZEKO IKATZA ERABILTZEN ZUTEN. OLENTZERO IKAZKINA ZEN ETA MENDIAN EGITEN ZUEN IKATZA. LAN ASKO IZATEN ZUEN ETXE GUZTIETARA IKATZA ERAMAN BEHAR IZATEN ZUELAKO. LAN HORRETAN ASTOAK LAGUNTZEN ZION: IKATZA ASTOAREN GAINEAN IPINTZEN ZUEN ETA BIAK HERRIRA JAISTEN ZIREN.



MARI DOMINGI HERRIAN BIZI ZEN, BIHOTZ HANDIKO
EMAKUMEA ZEN. IKATZA PARTITZEN IBILTZEN ZEN
ETXEZ ETXE, ETA AHAL ZUENEAN, JENDE POBREARI
LAGUNTZEN ZION.



OLENTZERO MENDITIK JAITSI ZEN EGUN BATEAN MARI
DOMINGI EZAGUTU ZUEN. ORAIN OSO LAGUNAK DIRA
ETA ONDO KONPONTZEN DIRA.

OLENTZERO HERRIAN ERE OSO EZAGUNA ETA MAITATUA DA. UME GUZTIEK BADAHITE OLENTZEROK EKARTZEN DITUENA OPARIAK, ETA BERE ZAIN EGOTEN DIRA URDURI-URDURI. BAINA, AURRETIK, OLENTZERORI GUTUNA IDAZTEN DIOTE: NOLA PORTATU DIREN ESATEKO, ZEINTZUK DIREN GUSTUKO JOSTAILUAK ETA ABAR. BAINA, JOSTAILUAK BAKARRIK EZ, OSASUNA, BAKEA, ETA HALAKOAK ERE ESKATZEN DIZKIOTE.





OLENTZERO ABENDUAREN 24AN HERRIRA JAISTEN DA ETA KALERIK KALE KANTUAN IBILTZEN DA HERRIKO JENDEAREKIN. GABON KANTAK ABESTEN DITUZTE. NORMALEAN HOTZ EGITEN DU, BAINA POZ-POZIK KANTATZEN DUTE.

B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (luzea)



GABON GAUEAN, ABENDUAREN 24AN, FAMILIA GUZTIAK ELKARTZEN DIRA. AFARI EDERRA EGITEN DUTE ZORIONTSUAK DIRELA OSPATZEKO. OLENTZERO BAKARRIK BIZI DA, BAINA, GAU HORRETAN, MARI DOMINGIREKIN AFALTZEN DU.

B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (luzea)

BAPO AFALDU ONDOREN, UMEAK OHERA JOATEN DIRA
TXINTXO-TXINTXO, ETA OLENTZEROK, BERRIZ, ETXEZ
ETXE JOSTAILUAK BANATZEN DITU.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (luzea)

HURRENGO EGUNEAN, UMEAK GOIZ-GOIZ JAIKITZEN DIRA. ETXEKO DENAK ESNATZEN DITUZTE ETA DENEK ELKARREKIN JOLAS EGITEN DUTE.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (luzea)


OLENTZEROREN IPUINA



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)

OLENTZERO IKAZKINA DA ETA MENDIAN EGITEN DU IKATZA. LANASKOIZATENDU ETA, HORREGATIK, ASTOAK LAGUNTZEN DIO.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)

MARI DOMINGI HERRIAN BIZI DA, IKATZA PARTITZEN
IBILTZEN DA. BIHOTZ HANDIKO EMAKUMEA DA, ETA
JENDEARI LAGUNTZEN DIO.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)

HERRIKO UMEEK OLENTZERORI GUTUNA IDAZTEN
DIOTE: NOLA PORTATU DIREN ESATEKO, ZEINTZUK
DIREN GUSTUKO JOSTAILUAK ETA ABAR.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)

OLENTZERO, ABENDUAREN 24AN, HERRIRA JAISTEN DA ETA KANTUAN IBILTZEN DA HERRIKO JENDEAREKIN. HOTZ EGITEN DU, BAINA POZ-POZIK KANTATZEN DUTE.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)

GABON GAUEAN, FAMILIA GUZTIAK ELKARTZEN DIRA AFARI EDERRA EGITEKO. OLENTZEROK MARI DOMINGIREKIN AFALTZEN DU.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)

BAPO AFALDU ONDOREN, UMEAK OHERA JOATEN DIRA
TXINTXO-TXINTXO, ETA OLENTZEROK JOSTAILUAK
BANATZEN DITU.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)

HURRENGO EGUNEAN, UMEAK GOIZ-GOIZ JAIKITZEN
DIRA JOLAS EGITEKO.



B. GABONAK

→ Olentzeroren ipuina (laburra)